



Dibertsioa, imajinazioa, sormena eta laguntasun erlazioen sorrera estimulatzeko jolas-jarduerak pentsatu ditugu. Bertan **kooperazio jolasak** oso presente egongo dira eta euskararen erabilerarako lagungarriak izango dira.

Irabaztea gustatzen bazaigu, zergatik galtzera jolastu?“. Aurtengo udan, denok bat egingo dugu

Nola dibertituko gara?

Jolas kooperatiboa izango da gure jarduera-programarako erabilitako metodologia. Hauetan ez da "irabaztera" jolasten, talde-lana eta ikasketa bultzatzera baizik.

Tailerrak: haur bakoitzak bere espazioa izango du. Bertan, gai desberdinekin erlazionatutako eta bere kontzentrazioa, adierazpen artistikoa eta autoestimua lantzea ahalbidetzen dion tailerrak izango ditugu.

Taldekatze murriztuak: Jarduerak garbiketa eta osasun protokoloetara egokitu ahal izateko.

Gaika banatuta

KULTURALAK	- Artea - Musika - Antzerkia - Komikiak
KIROLAK	- Gynkanak - Kirolak - Olinpiadak
GASTRONOMIKOAK	- Txikichef - Gastrojolasak
URETAKOAK	- Hondartza - Igerilekua
EKOLOGIKOAK	- Natura zaintzea - Gure ingurunea ezagutzea

Jolas kooperatiboak, "emaitzari baino dibertsioari balioa ematen dioten jolasak dira, ez da irabazle eta galtzailerik izaten, ez dira baztertzailak, integratzaileak baizik, denen parte-hartzea sustatzen dute eta helburu edo erronka komun bati aurre egin ahal izateko guztien parte-hartzea, laguntza eta kooperazioa behar-beharrezkoa da". (Giraldo, 2005)

Eta oroitzapenik izango al dut?

Argazki mordoak izango dugu www.loreka.com gune pribatuan.

Argazkiak gordetzeko, gurasoekin partekatzeko edota lagunekin une polit horiek gogoratu ahal izateko sarbidea emango digute.

DATU PRAKTIKOAK ETA TARIFAK

JOSTARIAK

HAURRAK: 2015-2017 artean jaioak
 SARRERA: 8:00- 9:30 bitartean
 IRTEERA ORDUA: 13:30atik aurrera
 TALDE MURRIZTUA
 RATIOA: 7haur monitore bakoitzeko

EKARRI BEHARREKOAK

Hamaiketakoa, bisera, txubaskero
 Hondartza/Igerilekurako poltsa
 Eguzkitako krema (etxean eman)
 Dbus Txartela (5 urte baino gehiago)
 Galtzerdi irristagaitzak

ASTEKO TARIFAK

	Aste 1	2-3 aste	4 aste edo +
13:30ak arte	98€	94€	88€
14:30ak arte	118€	114€	110€
14:30ak* arte	143€	139€	135€
15:30ak* arte	155€	151€	147€

Asteko tarifak: astelehenetik ostiralera.

*Jangela sartuta dago tarifa hauetan.

Ordutegi suplementua: 15:30-16:00: 10 euro/astean

IZEN EMATEKO FITXA

HAURREN DATUAK

Izena eta Abizenak Jaioteguna Alergiak edo intolerantziak

KONTAKTURAKO DATUAK

Aitaren/Amaren Izena Telefonoa posta elektronikoa

Kontu Korronte zk. eta titularraren izena

DATA ERRESERBAK Sarrera eta irteera-ordutegia eta jangelan gelditzeko aukera data guztietarako berbera bada, behin bakarrik adieraz daiteke..

Sarrera/Irteera	Jangela	EKAINA/UZTAILA							
		Al	As	Az	Os	Og	Lr	Ig	
		21	22	23	14	25	26	27	
		28	29	30	1	2	3	4	
		5	6	7	8	9	10	11	
		12	13	14	15	16	17	18	
		19	20	21	22	23	24	25	
		26	27	28	29	30	31	1	

Sarrera/Irteera	Jangela	ABUZTUA/IRAILA							
		Al	As	Az	Os	Og	Lr	Ig	
		2	3	4	5	6	7	8	
		9	10	11	12	13	14	15	
		16	17	18	19	20	21	22	
		23	24	25	26	27	28	29	
		30	31	1	2	3	4	5	

OHARRAK

.....

PLAZEN ERRESERBA IZAPIDEA. Lehen erreserba data 2021/05/21

Izen emate orria, ordain agiria (haurren izenarekin) eta baimena sinatuta bidali emailaz (emarono@loreka.com).
 Maiatzaren 24ean, plazaren konfirmazioarekin, erreserbaren datarekin eta erreserbaren zenbatekoarekin mail bat bidaliko dizuegu. Ondoren, bete gabeko plazen erreserba egiteko epea irekiko da.

Erreserbaren zenbatekoa: 50euro
 Kontu-zk.: ES3832095 5005 98 1063071533 - Titularra: Soluciones Loreka SL

ERRESERBAK ETA FAKTURAZIOA

- Plazaren erreserba egiteko ordaindutako zenbatekoa fakturazio osoaren zenbatekoan aurreratutako kopurutzat joko da. Uda Loreka aurrera eramatea ezin bada ordaindutakoa bueltatuko da.
- Datak aldatu ahal izango dira, beti ere data berriari plazarik badago.
- Fakturazioa eta kobrantza (banku-helbideratze bidez) ondorengo datetan burutuko da: Uztailaren 2an, ekain eta uztaileko egindako erreserbetan; abuztuaren 1ean, abuzturako egindako erreserbetan; eta irailaren 3an, irailako egindako erreserbetan.
- Itzulketak: ez da itzulketarik egingo asistentzia faltagatik, gaixotasunagatik (Covid barne) edo berrogeialdiak kontaktu zuzenagatik erreserba osotasunean edo partzialki bertan behera uzten baduzue. Egindako erreserbaren arabera ordainduko da.
- Lorekan positibo kasu bat egotearen ondorioz jarduera denboraldi batetan geldituko balitz eragindako dataren tarifaren %50a bueltatuko da. Eusko Jaurlaritzak jarduera guztiz moztuko balu disfrutatu gabeko egunen %100a bueltatuko da.

OHARRA: Jarduera honen zehaztapenak aldaketak jasan ditzake, datozen hilabeteetan osasun aginteek gure sektorean neurri berriak sartzen badituzte.

BAIMENAK

Nik,.....jaun/andreak,NAN zenbakia duenak, eta
Ikaslearen aita/ama edo tutore naizenak, Lorekari (Soluciones Loreka SL) baimena ematen diot:

1. Nire seme-alaba pentsatutako ekursioetara eramatea
2. Irteeretan, nire seme-alaba hurrengo pertsonak jasoko dute:

.....
.....
.....

3. Sukarra izan ezkerro, nire seme-alabari hurrengo botika eman:

Apiretal – Dosia:

Dalsy – Dosia:

4. Larrialdiren batean arrazoiren batengatik familiarekin harremanetan jartzerik izango ez bagenu LOREKA baimena du gure seme-alaba hurbilen dagoen osasun zentrura eramateko.

IRUDIEN TRATAMENDUA ETA DATU PERTSONALEN BABESA

LOREKAK jakinarazi nahi dizu burututako ekintza desberdinetan argazkiak eta bideoak egiteko aukera dagoela eta adingabeak, bai bakarka bai taldean, azaldu daitezkeela. LOREKAK material audiobisual hau inskribatutako familien artean partekatu dezake, euren seme-alaben egunerokotasunaren berri emateko asmoarekin. Erabiltzaileak ezingo du LOREKAK emandako material hau zabaldu. LOREKAK ez du ardura administratiboa edo penala izango beste hirugarren pertsonak argazki edo bideo horiekin egindako erabilpenaren ondorioz.

Interesdunak baimen zehatza ematen dio LOREKARI bere seme-alaben datu pertsonalak tratatzeko, honako helburu hauekin:

- Inskribatutako familien artean material audiobisuala partekatzeko eta zabaltzeko, web guneko gune pribatua erabiliz edo egokiak izan daitezke beste baliabideak erabiliz (bai paperez, bai digitalki).
- Material audiobisuala argitaratzea LOREKAK antolatutako ekintzak zabaltzeko, esate baterako, informatzeko esku-orriak, liburuxkak, iragarkiak, aurkezpenak, web gunea, sare sozialak edo LOREKAK garatutako beste baliabideren bat erabiliz (bai paperez, bai digitalki).

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, jakinarazi nahi dizugu zure datu pertsonalak SOLUCIONES LOREKA SL enpresaren fitxategietan jasoko direla eta dokumentu honen bidez zure baimena ematen duzula zure datuak tratatzeko eta komunikatzeko, honako helburu hauekin: eskatutako zerbitzuak kudeatzea, inkesta formularioak bidaltzea (erantzuteko betebeharririk gabe), partaideen irudiak LOREKAREN web gunean eta sare sozialetan argitaratzea antolatutako ekintzak zabaltzeko eta bere jarduerari legez dagozkion funtzio guztiak burutzeko. Era berean, zure intereseko izan daitekeen LOREKAK eskainitako produktu eta zerbitzuei buruzko informazioa bidaltzeko erabiliko dira. Informazio hau jaso nahi ez baduzu, marka jarri hemen .

Interesdunaren ardura izango da emandako datuen zehaztasuna, zuzentasuna eta egiazkotasuna. Erabiltzaileak ezingo du erabili hirugarrenen datu pertsonalik, euren aurretiko baimenik gabe.

Zure datuak ikustea, zuzentzea eta ezerezteka eska dezakezu, baita tratamenduari aurka egitea ere. Era berean, emandako baimena edonoz ezeztatu dezakezu, baita gai honi buruzko beste eskariren bat egin ere. Horretarako, idatzi bat bidali behar duzu helbide honetara: Soluciones Loreka SL, Portuetxe 23A, 1-5 Lokala, CEMEI Eraikina - Igara 20018, Donostia (Gipuzkoa), edo posta elektronikoko bitartez: lop@loreka.com. Eskarerekin batera, interesdunaren N.A.N. edo baliokide den beste agiriren kopia bidali beharko da. Zure eskariari emandako erabakiarekin ados ez bazaude edo erreklamazio bat jarri nahi baduzu, kontrol aginte eskudunera jo dezakezu, kasu honetan, Datuak Babesteko Bulegoa (www.agpd.es).

Data eta sinadura: